# Recurrente regusto amargo



**Carlos GIL**
Analista cultural

La noche me trae sonidos de una ampliación de objetivos que dejan regueros de ansiedad. Es un sabor amargo que recorre la memoria, que instala la desavenencia con la historia contada por el loco de las tachuelas en el cinturón. No hay una canción, ni un olor, ni un color, ni un poema, ni un beso, ni un bocadillo que pueda concentrar todas las sensaciones de una vida acompasada a los tiempos de cada cual. El tiempo dota de trazos áureos que se encaramaban sobre el contexto, tiñendo lo plúmbeo, lo arcaico, lo coyuntural en motivación contemporánea.

La dramaturgia es un pretexto con categoría seminal que necesita siempre una interpretación escénica actual. El intentar plasmar lo que se imagina que fue es una acción museística que lleva a un teatro de cartón piedra, que hace que los personajes acaben siendo ectoplasmas literarios, verbo ahogado en reticencias y exageraciones que abundan en el desastre.

Pretendo sustanciar la pregunta crucial sobre la necesidad de rescatar ciertas obras de un pasado posibilista. Homenajes y restauraciones de una jerarquía que hoy se nos nubla. He visto hace unos días un nuevo montaje canónico, sin reproches básicos de “El concierto de san Ovidio”, de Antonio Buero Vallejo. Y no acabo de quitarme un recurrente regusto amargo .

# Argitxu Noblia, Ipar Euskal Herriko erreferentea, «Jakin»-en

«Jakin» aldizkariaren 224. zenbakiko protagonista da Argitxu Noblia Richard. Ipar Euskal Herrian euskararen, euskal kulturaren eta politikaren eremuan egin duen lana aztertzen du hilabetekariak.

GARA | **BAIONA**

Bereziki Seaskaren sortzaile izateagatik ezaguna den emakumeari, Argitxu Noblia Richardi, eman diote hitza “Jakin” aldizkarian, Amagoia Gurrutxaga Urangak egindako elkarrizketaren bitartez. «Memoria ariketa» dela nabarmendu du Lorea Agirre hilabetekariko zuzendariak; hori dela-eta Ipar Euskal Herriko beste eremu batzuetan egin zituen ekarpenak ere ekarri dituzte gogora: Enbata mugimendu abertzalean eta Gure Irratian, esaterako.

1942. urtean Angelun sortu zen emakume hau bezala historia garaikidearen testigu esanguratsu direnen memoria atxikitzeak duen garrantzia azpimarratu du “Jakin”-eko zuzendariak: «Galzorian ez uzteko eta protagonisten ahotik zuzenean paperean idatzita uzteko».



**Noblia.** Isabelle MIQUELESTORENA

Ibilbide zabala du Nobliak. Bordelera mediku ikasketak egitera joan zenetik, abertzaletasunarekiko konpromisoa erakutsi zuen, Enbataren sorrerarekin. Mugimendu politikoko hautagai izan zen, eta 1969. urtean Seaskako lehendakari bilakatu zen. «Euskararen sokari segitzea nahi nuen nire haurrentzat», adierazi du elkarrizketan. Sei urte egin zituen karguan. «Nekatuta nintzelako utzi nuen. Ez nintzen ados jende zenbaitekin», aitortu du.

Elkar argitaletxearen eta Gure Irratiaren sorkuntza ere bultzatu zuen, baita industria eta laborantza munduko eragileena ere. PNBn eta EAn militatu du, eta egun giza eskubideen aldeko borrokan ari da.

**Seaskaren ikuspegitik**

Protagonistaren ibilbidearekin bat eginez, Xan Aire, Ikastolen Federazioko Hizkuntza Proiektuaren koordinatzaileak, Seaskaren oraingo eta biharko erronken inguruan artikulua argitaratu du: “Hezkuntza eta Hizkuntza: osotasun baten bila”.

“Egunen gurpilean” atalean sinadura berriak izanen dira ale honetatik aurrera: Itziar Ugarte kazetaria eta Jaime Altuna antropologoa.

## ANTZERKIA

# Zinez eta minez

**ZAZPI SENIDEKO**
**Taldea:** Axut!.
**Zuzendaria:** Ander Lipus.
**Aktoreak:** Ximun eta Manex Fuchs.
**Tokia eta eguna:** Aulestiko Artedrama topaketak, 2018-04-03.

Arantzazu FERNANDEZ IGLESIAS

Gure herriko lanak handi dire/astun dire, gogor dire/zatiturik gaudenentzat» X. Leteren kanta ez ezik A. Yupanquiren «Yo tengo tantos hermanos/que no los puedo contar» ere entzungo ditugu ikusleok, besteak beste. Azkenak amaiera borobila emango dio ikuskizunari, antzeztuta ikusi ditugun zazpi anai-arreben egiazko testigantza, benetako argazkiak hondoko gortinan aletzen diren bitartean. Hunkigarria da antzezlana. Maite zaitut, faltan zaitut. Anai-arreben istorio intimoz osaturiko bilbeak historia unibertsala ehunduko du, gure gizartearena. Horrela, Fuchs anaiek eta Lipusek senidetu gaituzte bizitza eta antzerkia batuz.

Nik zu zaitut maiteago… Hor dago kontua, edozein modutan gaudela, kartzelan zu, bisitan ni, hiltzear ospitalean zu, ni jakiteke zu torturaturik zaudela, gu biok haurrak ginela armairuan ezkuturik, adimen urria duzula, egoskor, zure ondoan nahi nauzula, istripuan hilda zaitudala, ni zuri ordenagailuko bideoan miraz begira. Hi eta ni bat izan(go) gaituk/n, hor dago koxka. Gainera, gizonezko pertsonaiek, gehiengoa izaki, zaintzaren etika barneraturik duen maskulinitate zuzen baten irudia oholtzaratzen dute.

Funchs anaiek zenbaitetan pertsonaiak gorpuzten dituzte maisuki, beste zenbaitetan ahotsa eta musika ipintzen diete euren testu edota pentsamenduei. Bideoa pantaila erraldoian, testigantza emaileen aurpegiak lehen planoan hainbatetan. Zatika eratzen da ikuskizunaren biribiltasuna, tarte batetik bestera, kanta ezagunak puzzleko pieza aldatzeko txanda markatuz eta erritmoa mantenduz. Errendimendu perfektuaren eszenografia: estore bertikala proiekzioen gunea eta hiru kutxa. Pertsonaiak, momentu batean, Ximun eta Manex dira. Azken istorioa beren familiari dagokio, baina dagoeneko antzoki honetan denok familia bat garela ulertu dugu. *Yo tengo tantos hermanos…*

## La ópera «La pequeña Bella Durmiente», en Bilbo

El Teatro Campos acogerá este sábado la ópera infantil “La pequeña Bella Durmiente”, producida por Opera Divertimento y con la dirección escénica de Miguel Ribagorda. Contará con la participación de Lilura Abesbatza de Getxo y Biotz Alai Txiki de Algorta.

## Medalla de Oro de arquitectos de Catalunya para Moneo

El Colegio de Arquitectos de Catalunya entregó ayer la Medalla de Oro al arquitecto Rafael Moneo. «Gravias a su trayectoria se ha convertido en una figura de referencia en la arquitectura internacional del último medio siglo», destaca.

## Éxito de Yebra al frente del Ballet Nacional de Uruguay

Igor Yebra ha debutado con éxito al frente del Ballet Nacional de Sodre (Uruguay). Durante 16 funciones –del 15 al 29 de marzo– “La bella durmiente” ha batido todos los récords de público, congregando a un total de 27.544 personas.

TABAKALERA
4
Abril
03>06
Lantegia 10:00 - 14:00 EU+ES
HIRIA HACKEATU
SARE SOZIALAK, KALE SOZIALAK
Inés Bebea
Adina: 12-17
tabakalera.eu &
Hirikilabs
03>06
Taller 10:00 - 14:00 EU+ES
HIRIA HACKEATU
REDES SOCIALES, CALLES SOCIALES
Inés Bebea
Edad: 12-17
tabakalera.eu &
Hirikilabs
www.tabakalera.eu